

45 URTE EKONOMIA SOZIAL ETA ZIRKULARRA KUDEATZEN GIPUZKOAN

Ehungintza produktuak, altzariak eta gailu
elektriko-elektronikoak (GEEH) berrerabiltzea
sustatzen dugu, gaikako bilketaren,
tratamenduaren eta merkaturatzearen bidez

Ane Salaberria
Ingurumen Arduraduna
ane.salaberria@emaus.com
604 554 079



**Ekonomia zirkularraren bidez,
laneratzeko aukerak sortzen
dizkiegu lan merkatu arruntean
sartzeko zailtasunak dituzten
pertsonei, ekonomia zirkularra
bera sustatzen laguntzeaz gain.**



BERRIKUNTZA, GIZARTE-INPAKTUA ETA JASANGARRITASUNA UZTARTZEN DITUEN ERREFERENTZIAZKO EREDUA

Emaus Gizarte Fundazioa 1980an sortu zen Erreterian, eta 45 urteko esperientzia du.

Bere eginkizunen artean, ekonomia zirkularra sustatzea du, baliabideak berrerabiliz, hondakinak modu efizientean kudeatuz, eta bazterketa-egoeran edo -arriskuan daudenen herritarrentzat lan-aukerak sortuz.

EKOSISTEMA HORREK BOST ARDATZ NAGUSI DITU:

Jasangarritasunarekiko konpromisoa

Ekonomia zirkularren printzipioekin bat dator gure lana, baliabideen berrerabilera maximizatuz, hondakinen sorkuntza minimizatuz eta eredu jasangarriranzko bidezko trantsizioa sustatuz.

Zuzeneko gizarte-inpaktua

Ibilbide soziolaboral pertsonalizatuaren bidez, enplegu inklusiboa sortzen dugu, ekimen bakoitzaren erdian pertsonak ipiniz.

Berrikuntza eta efizientzia hondakinen kudeaketan

Teknologia aurreratuak aplikatzen ditugu ehun-hondakinak, tamaina handikoak eta

GEEHak tratatzeko gure instalazioetan, berrerabilera-tasak hobetuz eta ingurumen-inpaktua murriztuz.

Aliantza estrategikoak eta sareko lana

Administrazio publikoekin, enpresa pribatuekin eta hirugarren sektoreko erakundeekin lankidetzan estuan aritzeari esker egin dezakegu hau guztia, eta sarean egiten dugu lan, gizarte- eta ingurumen-inpaktua maximizatzen.

Herritarren kontzientziak eta parte-hartzea

Kanpainen, jardunaldi irekien eta jarduera komunitarioen bidez, ingurumen-hezakuntza eta -sentsibilizazioa sustatzen ditugu, kontsumo arduratsuagoa bultzatzeko.

EMAUS GIZARTE FUNDAZIOA ZENBAKITAN (2024)

- **Langileak:** 365 pertsona
- **Laneratze lanpostuak:** 46
- **Ehungintza, altzariak eta GEEH tratamendurako 3 instalazio:** Erreteria eta Urnieta (Kooperarekin ABEEan) eta Arrasate.
- **Urtero kudeatzen diren hondakinak:** 18.500 tona

**ERAKUNDE PUBLIKO-
PRIBATUEI BEREN
ZIRKULARTASUNEAN
LAGUNTZEN DIEGU,
IKERKETA PROIEKTUEN
BIDEZ**





Weeeloop

LIFE WEEELOOP proiektuak tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak kudeatzeko sistema berri bat proposatzen du, ekonomia zirkularreko ereduetan oinarrituta. Kasu honetan, **sukaldeko plaken materialak eta osagaiak (indukzioa, erradiatzaileak eta hibridoak) berreskuratzean zentratzen da, % 90eko berreskuratze tasa lortuz.**

LIFE WEEELOOP proiektuak hondakin eta produktuen balio kate osoko alderdi interesdunak batzen ditu, Ekoizleen Erantzukizuna barne, hau da: **ECOLEC** erakundea, TEEHen gaikako bilketa kudeatzen duena; ekonomia zirkularren alorreko aditua (**Circular Replay**), pasaporte digitalen bidez hondakin balorizazioa eta trazabilitatea sustatzen dituena; TEEHak berrerabiltzeko konpontzen eta prestatzen dituenak (**Emaus Gizarte Fundazioa** eta **Éxxita**); eta etxetresna elektrikoetarako osagaien fabrikatzaile liderra (**COPRECI**).

ECOLEC
FUNDACION

34 circular
replay

COPRECI

éxxita
be circular





Cortex


CORTEX proiektuak **ekodiseinu soluzio berriak** garatzea du helburu, ehungintzaren sektorea iraunkorragoa izan dadin, material berrien garapen esperimentalari esker. Material horiek sektorearen beharrak ase ditzakete, bai prestazioei dagokienez, bai iraunkortasunari dagokionez, eta txertatzen diren produktuen bizi amaiera iristean ehunak berreskuratzen lagunduko dute.

Zehazki, **honako produktu hauek garatu eta baliozkotuko dira:**

- **Hari termofusible bio-oinarrituak**, kremaierak eta errematxeak hainbat estimuluren bidez errazago bereizteko, izan estimulu termikoa edo mikrouhin bidezkoa.
- Material geruzak bereiztea eta berrerabiltzea ahalbidetzen **duten itsasgarri bio-oinarritu itzulgarriak**.

Proiektuak lau osagai hauek aurreikusten ditu: **materialak diseinatzeko** etapak; jantzietan osagaiak/geruzak "eskariaren arabera bereizteko" **protokoloak** garatzea; osagaiak/geruzak lantegian bereizteko **prozesuen bideragarritasuna** aztertzea (ekipoen eta prozesuen diseinuak); eta konponbidea ingurune muntadun batean **balioztatzea**.

Prozesu berri horiek honetan lagundu behar dute: ehungintza birziklatzearen erronkari erantzuten.



Smarteko

SMARTEKO proiektuak **produktuaren pasaporte digital**en sorrerari erantzungo dioten ingurune edo plataforma digitalen oinarriak ezarri eta horiek garatu nahi ditu, modu efiziente, egituratu, seguru eta automatizatuan gaituz:

- **Datuak** biltzea.
- Balio kateko eragile bakoitzak sortutako informazioaren **trazabilitatea**.
- Pasaporte digitala osatzen duten iraunkortasun eta/edo zirkulartasun **adierazleen kalkulua**.
- Balio kate zirkularreko/hornidura kateko eragileen artean **informazioa** partekatzeko bete beharreko baldintzak: erregistroaren bortxaezintasuna, zibersegurtasuna, pribatutasuna, anonimizazioa (kasuaren arabera), etab.



Upcycling

Emaus Gizarte Fundazioaren upcycling arloa ehun-hondakinen eta erabiltzen ez diren materialen arazoari erantzun berritzaile eta jasangarria emateko sortu da. Ekimen honen bidez, **hondakinak baliabide bihurtzen ditugu, eta, bide batez, sustatu egiten dugu bai enplegu inklusiboa sortzea bai ekonomia zirkularra**. 2009az geroztik, hainbat industrietatik etortitako materialak berrerabili ditugu produktu jasangarriak egiteko, zaurgarritasun egoeran dauden pertsonen prestakuntza- eta lan-aukerak eskaintzeaz gainera.

Proiektuaren helburuak

- **Ehun-hondakinak** eta erabiltzen ez diren beste material batzuk **birbaloratzea**, ekodiseinuaren bidez beste bizitza bat emanez.
- **Ekonomia zirkularra sustatzea**, produktuak artisau-eran, modu jasangarrian eta tokian bertan ekoiziz.
- Gizarte-bazterketako egoeran edo horretarako arriskuan dauden pertsonentzako **enplegu inklusiboa sortzea eta prestakuntza ematea**.
- **Ingurumen-inpaktua murriztea**, materialak berrerabiliz eta CO2-aren isuriak eta ur-kontsumoa murriztuz.

